

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak kirol arloan boluntarioria jarduerak egiteko 6.000 euroko diru-laguntzak iragarri ditu

Arlo horretako proiektu batean gorputz eta kirol ekintzak antolatzen dituzten entitateek maiatzaren 24a arte eskaerak egin ditzakete

Asteartea, 2019ko Apirilaren 9a

Kultura, Kirol eta Gazteria Departamentuak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bidez, kirol arloan 2019ko urtarrilaren 1etik urriaren 30a arte, boluntarioria jarduerak egiteko 6.000 diru- laguntzak emanen ditu. Jarduerak honakoak izan daitezke: jolas aisialdikoak, lehiakorak edo prestakuntzakoak, eta hauen artean, lehentasuna izanen dute gizon eta emakumeen arteko berdintasuna sustatzen dutenek.

Nafarroako Foru Erkidegoaren Ekintza Boluntarioen Entitateen Erroldan inskribatuta dauden boluntarioria-entitateek eta boluntarioria programak dituzten entitateek bihurtik aurrera eskaera egin dezakete, maiatzaren 24ra arte. Horretarako, zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzarekin zergak egunean eduki behar dituzte.

Diru-laguntza horien bidez, Nafarroako Gobernuak xede hauek bete nahi ditu: partaidetza soziala eta jarduera fisikoa eta bizitza-estilo osasungarria bultzatzen dituzten jarduera fisikoak, aisialdi-olgetakoak edo kirol-jarduerak sustatzea; kirol- jarduera fisikoen antolakuntzan boluntarioen partaidetza sustatzea; herriko sektore guztietan jarduera fisikoak- kirola praktikatzeko erraztea; kirolaren berezko balioak sustatzea, hala nola esfortzu pertsonala, talde-lana, kooperazioa, solidaritatea, tolerantzia, aurkariarekiko errespetua eta joko garbia eta genero-berdintasuna jarduera fisikoaren- kirolaren bitartez, edo genero-ikuspegiarekin bestelako jarduerak proposatzea.

Deialdiaren oinarrien arabera, diru-laguntza emango da soilik jardueraren izaerari erantzuten dioten gastuak estaltzeko, bereziki: boluntarioentzat material suntsikorra, prestakuntzarako gastuak, aseguruak, eta, orokorrean, proiektuaren garapenerako ezinbestekoa den beste edozein gastu.

Eskaerak telematikoki aurkeztu behar dira nahitaez Nafarroako Gobernuaren Izapideetarako on-line Katalogoan.

true